



Sintesia: adierazle nagusiak eta gogoetaren gakoak

2017

Sintesia: adierazle nagusiak eta gogoetaren gakoak

Ondoren, aurreko dimentsio bakoitzeko taula komentatu bana erakusten da, aurkeztutako adierazle guztien artean esanguratsuentzat eta interesgarrientzat jotakoak jasota (irizpidetzat abagunea, eguneratze maiztasuna, konparaziorako aukera, ikergaiarekiko egokitzapena eta abar hartuta) errealitatearen aldizkako jarraipena egin ahal izateko asmoz.

Urdinez, ikerketa honetan zehar udalerriko 18 urtetik beherako biztanleriari egindako kontsulta zuzenaz elikatutako adierazleak agertzen dira. Laranja, udal sail eta entitateen jardueri dagozkien adierazleak (horiek beste txosten batean islatuko dira, "Udalaren jardueren memoria" izenekoan). Beltzez, bigarren mailako iturrietatik jasotako datuetan oinarritutako adierazleak.

Lehentasuna Bilboko udalerriarekin lotutako datuei eman bazaie ere, kasu batzuetan, datu faltaren ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoari eta/edo EAeri dagozkien erreferentziak txertatzea erabaki da, sintetikoa izanagatik ere diagnostikoaren ideia nagusiak islatzeko nahikoa izango den adierazle multzoa lortzeko.

Gainera, aintzat hartuta haurren eta nerabeen beharrezaneiei eta eskubideei eragin diezaieketen indarguneei, abaguneei, ahulguneei eta mehatxuei buruzko datuen balorazio partekatua, jasotako gogoetetatik eratorritako gakoak sintetizatzeko asmoz egindako grafiko bana ezarri da taula bakoitzaren ondoan.

Kasu honetan, urdin ilunagoz markatu dira osasun gutxiagoko kontuak eta/edo gaur egun kezka handiagoa sortzen dutenak adierazten dituzten gakoak.

Zenbat haur eta nerabe bizi dira Bilbon?

18 urtetik beherako **50.112 haur eta nerabe bizi dira Bilbon**, biztanleria osoaren %14,5. Biztanleria osoarekin alderatuta duen pisu murrizta biztanleriaren zahartzearekin lotuta dago, EAE osoan zabaldua dagoen errealitate bat, **bai eta jaiotza-tasa Europako batez bestekotik beherakoa izatearekin ere** (2014an 1.000 biztanleko 8 haur jaio ziren gure udalerrian). Hori, aldi berean, gazteriak **emantzipatzeko** dituen zailtasunekin ere lot daiteke, amatasun eta aitatasun proiektuak geroratzen dituelako.

Udalerrian bizi diren haurren eta nerabeen biztanleriaren 7,74% **atzerritar jatorrikoa** da, eta kalkulatu da **ijito etniako** 16 urte baino gutxiagoko 1.600 adingabe inguru egon daitezkeela (%3,58).

kultura dibertsitatea

emantzipazioa-familia proiektu berriak

DEMOGRAFIAREN ETA BIZTANLERIAREN ADIERAZLEAK						
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Biztanleria	18 urtetik beherako biztanleria	Bilbo	2015	50.112	<i>Udal errolda</i>
		Nesken pisua	Bilbo	2015	48,62%	<i>Udal errolda</i>
		Mutilen pisua	Bilbo	2015	51,38%	<i>Udal errolda</i>
		0 eta 3 urte arteko biztanleria	Bilbo	2015	10.621	<i>Udal errolda</i>
		4 eta 7 urte arteko biztanleria	Bilbo	2015	11.499	<i>Udal errolda</i>
		8 eta 12 urte arteko biztanleria	Bilbo	2015	14.208	<i>Udal errolda</i>
		13 eta 15 urte arteko biztanleria	Bilbo	2015	8.409	<i>Udal errolda</i>
		16 eta 17 urteko biztanleria	Bilbo	2015	5.375	<i>Udal errolda</i>
2	Biztanleriaren mugimendua	Jaiotza-tasa gordina (1.000 biztanleko jaiotza kopurua)	Bilbo	2014	%8,01	<i>Eusko Jauriaritza. Ogasun eta Finantza Saila. Udalmag</i>
3	Egitura	18 urtetik beherako biztanleriaren pisua biztanleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2015	%14,5	<i>Udal errolda</i>
4	Egitura	Atzerritar biztanleriaren pisua biztanleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2015	%7,74	<i>Udal errolda</i>
5	Egitura	Ijito etniako biztanleriaren pisua biztanleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2005-2006	%3,58	<i>Ikerketetan oinarritutako kalkulua</i>

Nolako familietan bizi dira?

34.175 familia-etxetan bizi da 18 urtetik beherako biztanleria. Gehienak seme-alabak dituen bikote batean oinarritutako familia nuklearretan bizi dira, baina gero eta presentzia handiagoa dute beste familia mota batzuek. 18 urtetik beherakoen %12,69 (6.400) **familia-etxe gurasobakarretan** bizi dira, kasurik gehienetan buru emakume bat dutela.

Gero eta presentzia handiagoa hartzen ari dira **familia-etxe berrosatuak** ere, bigarren bikote-batze edo ezkontzatik edo are gerokoagatik aurrerakoak (menpeko seme-alabak dituzten familia-etxe nuklearren %3,8 EAEn); horietan, elkarrekin bizi daitezke bikoteko kide baten seme-alaba soilik direnak (familia nuklearretako seme-alaben %2,7 ez dira bikoteko bi kideen seme-alabak).

Seme-alabak dituen Bizkaiko familia nuklear baten batez besteko tamainak behera egin du azken urteotan, eta gaur egun 3,56 kide ingurukoa da; baina adingabeak dituzten Bilboko sei familiatik ia bat (%15,63) **familia ugaria** da. Horietan bizi da udalerriko adingabeen biztanleriaren %28,15 (14.200).


Oro har, familien barruko harremanak eta komunikazioa demokratizatu egin direla dirudi; ikerketa honen markoan kontsulta egin zaion Bilboko 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren %74,9k sentitzen du bere gurasoek aintzat hartzen dutela **bere iritzia, etxean zerbait erabakitzean**.

Dena den, aitek eta amek nahiko luketen baino denbora gutxiago eskaintzen diote haurrak zaintzeari. Ikerketa batzuek adierazten dute 12 eta 18 urte arteko biztanleriaren erdiak baino gutxiagok (%48k) partekatzen dituela astero gurasoekin **hizketarako aukera** ematen duten **aisialdiko uneak**.

Gutxi gorabehera EAeko biztanleria okupatuaren heren batek (%31,2k) adierazten du **zailtasun handiak dituela lana eta familia bateratzeko**, seme eta alaba adingabeen zaintzarekin lotuta. Biztanleria okupatuaren 15 urtetik beherako seme-alaben ia erdiak (%48,9) gurasoez besteko norbaitek zaintzen ditu eskola ordutegitik kanpo. Kasurik gehienetan, familiako kide batek edo ordaindutako pertsona batek zaintzen ditu; beste batzuek luzatu egiten dute ikastetxeko egonaldia eta batzuk **bakarrik** gelditzen dira.

Bestalde, zaintzaren ardurak emakumeen eta gizonen artean berdintasunez banatu gabe jarraitzen dute. Seme-alabak zaintzeko asmoz lana uzteko edo laneguna murrizteko aukera emakumeek hartzen dute kasurik gehienetan. Ebazpen positiboa izandako **lanegunaren murrizketako eta lanuzteko** hamar espedientetik bederatzi (%92,5) emakumeenak izan ziren 2015ean.

Oro har, familiek kezka erakusten dute gatazka egoera batzuk kudeatzeko moduari buruz zein seme-alabak babestearen eta autonomian heztearen arteko orekari buruz ere.



FAMILIAREN ADIERAZLEAK						
OSAGIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Adingabeak dituzten familiak	18 urtetik beherakoak bizi diren familiak edo familia-etxeak	Bilbo	2016	34.175	Udal errolda
2	Familia egitura	Menpeko seme-alabak dituzten familia nuklear berrosatuen pisua	EAE	2015	%3,8	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskal Familien eta Familia-Etxeetako Inkesta (FFEI)
3	Familia egitura	Familia gurasobakarrean bizi den 18 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2011	%12,69	Eustat. Inkesta demografikoa 2011
		Familia gurasobakarrean bizi den 18 urtetik beherako biztanleria	Bilbo	2011	6.400	Eustat. Inkesta demografikoa 2011
4	Tamaina	Familia ugarian bizi den 18 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2011	%28,15	Eustat. Inkesta demografikoa 2011
		Familia ugarian bizi den 18 urtetik beherako biztanleria	Bilbo	2011	14.200	Eustat. Inkesta demografikoa 2011
5	Harremanak	Gurasoekin aisialdiko uneak dituen eta haiekin astero hitz egiten duen (unibertsitatez kanpoko > 12 urte) eskola biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	%48	Drogak eta Eskola VIII. Droga-menpekotasunen Deustuko Institutua
6	Zaintza denbora	Lana eta familia bateratzeko zailtasun handiak dituen biztanleria okupatuaren proportzioa	EAE	2015	%31,2	Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
7	Denbora eta zaintza	Eskola orduz kanpo gurasoez besteko norbaitek zaindutako 0 eta 15 urte arteko haurren proportzioa	EAE	2015	%48,9	Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
		0 eta 2 urte arteko haurren proportzioa	EAE	2015	%52,9	Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
8	Denbora eta zaintza	Seme-alabak zaintzeko asmoz laneguna murrizteko edo lana uzteko egin eta ebazpen positiboa izandako eskarien artean emakumeek egindakoen proportzioa guztiekin alderatuta	EAE	2015	%92,5	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
9	Parte-hartzea	Etxean bere iritziaz nahikoa edo asko galdetzen diotela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%74,9	Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala

Zer nolako osasuna dute?

Adierazle tradizionalak erakusten dute, oro har, Bilboko haur eta nerabeen biztanleriak osasun ona duela. Haurren **heriotza-tasa** (urtebetetik beherako 2,16 adingaberen heriotza bizirik jaiotako 1.000 hurreko) Estatuko eta Europako batez bestekotik behera zegoen 2014an, eta Bizkaiko 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren %52,4k **hautematen du osasun ona duela**.


Hala ere, garrantzitsua da ikusaraztea, halaber, biztanleriaren zati batek hainbat motatako zailtasunei aurre egiten diela. Bilboko 15 urtetik beherako 100 adingabetik 2 inguruk dute aitortutako desgaitasunen bat. Gainera, kalkulatu da EAEko 14 urtetik beherako adingabeen %0,24k **osasun mentaleko** nahasmenduak dituela (depresioa, antsietatea eta abar), eta EAEko 15 eta 19 urte arteko biztanleriaren %13ak adierazten du arazo psikologikoak izan dituela (antsietatea, estresa, depresioa...).

Ariketa fisikoak biztanleriaren jardueretan urte batzuk lehenago baino presentzia handiagoa duela badirudi ere, nabarmentzekoa da EAEko 2 eta 17 urte arteko biztanleriaren %25,52k gehiegizko pisua duela, eta zehazki %6,97k **obesitatea** (proportzio handiagoan mutilek neskek baino). Gure erkidegoan tasa Estatuko batez bestekotik behera dagoen arren (Espainiako adingabeen %9,56k dute obesitatea), kopurua gero eta kezagarriagoa da, bi ehuneko egin baitu gora azken bost urteetan.

Kezken artean badute lekuri sexu praktikekin eta substantzien kontsumoarekin lotutako jokabide arriskutsuek ere. Alkoholaren kontsumoan azken 5 urteetan beheranzko joera egiaztatu bada ere, ez da ahaztu behar 12 urtetik gorako unibertsitatez kanpoko eskola biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%55,3k) **alkohola kontsumitzen duela eskuarki asteburuetan**, eta %31,6 gehiegizko edo arriskuko edalea dela asteburuetan.

Haxixaren kontsumoa ere jaitsi egin da, baina azken urtebetean haxixa **kontsumitu** duten EAEko 15 eta 16 urte arteko adingabeen portzentajea (%43) askoz altuagoa da Espainiakoa eta Europakoa baino (%22 eta %13 hurrenez hurren).

Tabakoaren kontsumoak, aldiz, gorakada arina izan du, eta 15 eta 16 urte arteko nerabeen %31k **tabakoa erretzen du eskuarki**, Europako batez bestekoa (%28) baino askoz altuagoa den tasa.



OSASUNAREN ADIERAZLEAK						
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESAPRRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Heriotza-tasa	Haurren heriotza-tasa (urtebetetik beherako haurren heriotzak bizirik jaiotako 1.000 hurreko)	Bilbo	2014	% 2,16	INE. Oinarrizko adierazle demografikoak
2	Osasun mentala	Arazo psikologikoak (antsietatea, estresa, depresioa...) izan dituela adierazten duen 15 eta 19 urte arteko biztanleriaren proportzioa	EAE	2012	% 13	Gazteriaren Euskal Behatokia. Euskal gazteria 2012
3	Dibertsitate funtzionala	Desgaitasuna duen biztanleriaren pisua 0 ea 15 urte arteko biztanlerian	Bilbo	2015	% 1,95	Bizkaiko Foru Aldundiaren eta udal erroldako datuetan oinarritutako kalkulua
4	Pertzepzioa	Oso osasun ona duela hautematen duen 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bizkaia	2012	% 52,4	Eusko Jaurilaritza. EAEko Osasun Inkesta
5	Ohiturak	Obesitatea duen 2 eta 17 urte arteko biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	% 6,97	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasunaren Inkesta Nazionala.
6	Droga-mendekotasunak	Asteburuetan alkohola kontsumitzen duen (unibertsitatez kanpoko > 12 urte) eskola biztanleriaren proportzioa	EAE	E2011	% 55,3	Drogak eta Eskola VIII. Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua
7	Droga-mendekotasunak	Eskuarki tabakoa kontsumitzen duen (unibertsitatez kanpoko > 12 urte) eskola biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	% 25,3	Drogak eta Eskola VIII. Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua
		Eskuarki tabakoa kontsumitzen duen 15 eta 16 urteko biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	% 31	Drogak eta Eskola VIII. Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua
8	Droga-mendekotasunak	Azken urtebetean haxixa kontsumitu duen (unibertsitatez kanpoko > 12 urte) eskola biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	% 28,3	Drogak eta Eskola VIII. Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua
		Azken urtebetean haxixa kontsumitu duen 15 eta 16 urteko biztanleriaren proportzioa	EAE	2011	% 43	Drogak eta Eskola VIII. Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua

Hezkuntza sistema...

2014/2015 ikasturtean **47.965 ikasle zeuden matrikulatuta** Bilboko udalerriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxeetan (kalkulatzen da Bilboko haur eta nerabeen %4,28 egon daitekeela udalerritik kanpoko ikastetxe batean matrikulatuta).

Horietako gehienek ikastetxe pribatu-itundu batean ikasten dute (%67,52) eta 10etik 4 inguruk ikastetxe publiko batean (%39,67). Bilboko **matrikulazio publikoen** pisua (%39,67) are EAEkoa baino baxuagoa da (%50,79), eta EAEkoa, aldi berean, Estatukoa baino askoz baxuagoa (%67,52).

Ikasleriaren %48,43k euskaraz ikasten ditu irakasgai guztiak (**D Eredua**), Bizkaiko batez bestekoa (%56,63) eta EAEkoa (%61,85) baino baxuagoa den tasa, baina ikasleria euskaldunaren pisuak gora egiten du adinak behera egin ahala (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan tasa %61,22ra eta %56,53ra iristen da hurrenez hurren).

Ikastetxeetan, Bilbon jaiotako neska eta mutilekin batera daude **atzeritar jatorriko ikasleak** (horien pisua ikasleria osoarekin alderatuta %6,79koa da ikastetxe pribatuetan eta %11,71raino igotzen da ikastetxe publikoetan). Badaude, halaber, dibertsitate funtzionala duten neskak eta mutilak ere, kalkulatzen baita **hezkuntza beharrian bereziak** dituen ikasleriaren %84 ikastetxe arruntetan integratuta dagoela, Estatuko batez bestekotik gora dagoen tasa (%79,6).

2 urteko eskolaratzea etengabe hazi da gure autonomia erkidegoan, eta 2013-2014 ikasturtean %91,61koa izatera iritsi zen, duela hamar urtekoa (%74,3) eta gaur egun Estatuan dagoena (%52,1) baino askoz altuagoa.

Eskola-uzte goiztiarraren EAEko tasak ere onerako bilakaera izan du azken urteotan. 2015ean 18 eta 24 urte arteko biztanleriaren %9,7ak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua zuen gehienez eta ez zen beste ikasketarik egiten ari. Tasa hori Estatukoa zein Europakoa baino baxuagoa da (%20 eta %11 hurrenez hurren).


Eskola-absentismoa, *PAE eskola-absentismoa prebenitzeko, detektatzeko eta kontrolatzeko udal programaren* arabera, Bilboko 6 eta 16 urte arteko eskola biztanleriaren %1,69ri eragiten dion kontua izan daitekeela kalkulatzen da.

Eskola-errendimendua da, aldiz, gaur egungo kezka nuklearretako bat. EAEko hamar ikasletik zazpik **modu egokian egiten du aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu eta gero**, hau da, ikasketa garaiari dagozkion irakasgai guztiak gainditzen dituzte, baina azkeneko PISA txostenaren emaitzek aurreko hiru urteekiko atzerakada bat adierazten dute ebaluatutako hiru gaitasunetan (matematika, zientziak eta irakurmena).

Zehazki, ikasleriaren %17,4k maila desegokia du **irakurketa proban**, eta ELGAko batez besteko maila gainditu arren ez da 2020rako europar helburura iristen (maila baxuetako ikasleria <%15).

Ikerketa honetan jasotako datuek erakusten dute, halaber, **parte-hartzea** izan daitekeela gainditu gabeko irakasgaietako bat ikastetxeen barruko bizitzan. 8 eta 18 urte arteko ikasleen laurden batek baino ez du uste irakasleek bere iritziaz nahikoa galdetzen diotenik ikasgelan zer egin edo txango bat egitea erabakitzean.

Bestalde, familiek aitortzen dute oro har hezkuntza komunitateko kide gisa duten inplikazioa hobetzeko modukoa dela, eta hezkuntza ez arautuaren esparrutik, edo beste batzuetatik, hala nola osasuna, gizarte-zerbitzuak eta beste, esku hartzen duten eragile gizarte-hezitzaileek ikastetxeetako koordinazio handiagoa eskatzen dute aurrera egiteko funtsezko arloetan, hala nola balioetan heztea, beharrianak atzematean, erantzunen koordinazioan eta abar.



HEZKUNTZAREN ADIERAZLEAK					
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA
1	Ikasleria Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuko udalerriko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleria	Bilbo	2014/2015	47.965	<i>Eustat. Eskola-jardueraren estatistika</i>
	Ikasteko udalerritik kanpora irteten den biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2014/2015	%4,28	<i>Eustaten datuetan oinarritutako kalkulu orientatiboa. Eskola-jardueraren esatitsika eta udal erolda</i>
2	Eskola inkusiboa Atzerritar jatorriko ikasleriaren pisua	Bilbo	2014/2015	%8,75	<i>Eustat. Eskola-jardueraren estatistika</i>
	Atzerritar jatorriko irakasleriaren pisua ikastetxe publikoetan	Bilbo	2014/2015	%11,71	<i>Eustat. Eskola-jardueraren estatistika</i>
3	Eskola inkusiboa Ikastetxe arruntetan integratuta dagoen hezkuntza beharrian bereziko ikasleriaren proportzioa hezkuntza beharrian bereziak dituen ikasleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2013/2014	%84	<i>MECD Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren estatistika</i>
4	Hezkuntza eredia D eredian (unibertsitatez kanpoko ikastetxe arautuetan) matrikulatutako ikasleriaren pisua	Bilbo	2014/2015	%48,32	<i>ECD. Estadística de Enseñanza no Universitaria</i>
5	Hezkuntza eredia Ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleriaren pisua	Bilbo	2014/2015	%39,67	<i>ECD. Estadística de Enseñanza no Universitaria</i>
6	Sistamarako sarbidea Haur Hezkuntzako eskolatze tasa (2 urte)	EAE	2013/2014	%91,61	<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Datuak eta kopuruak</i>
7	Iraupena Eskola-uzte tasa (gehienez ere DBHko titulua duen eta ez den 18 eta 24 urte arteko biztanleria)	EAE	2015	%9,7	<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hzkuntzako Adierazleen Sistema</i>
8	Iraupena 6 eta 16 urte arteko ikasleria absentistaren pisua ikasleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2014-2015	%1,69	<i>Nilboko Udala. Gizarte Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
9	Eskola-errendimendua PISAko irakurketa proban maila baxuetan/desegokietan dagoen 15 urteko biztanleriaren proportzioa	EAE	2015	%17,4	<i>ISEI-IVEI. ELGA-Ikasleen Ebaluziorako Nazioarteko Programaren Txostena PISA.</i>
10	Eskola-errendimendua DBH amaitu eta gero modu egokian aurrera egiten duen ikasleriaren proportzioa	CAPV	2013	%69,9	<i>ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema</i>
11	Parte-hartzea Ikasgelan bere iritziaz nahikoa edo asko galdetzen diotela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%26,3	<i>Inketa propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>

Ongizate materiala...

Bilboko **batez besteko familia errenta erabilgarria** 33.876€ ingurukoa zen 2013an (33.717€ko batez bestekoa Bizkaian), auzoen arteko desberdintasun nabarmenekin. Batez besteko handiena duen auzoa Abando da (53.755€), eta haren atzetik Indautxu (52.059€) eta Castaños (44.890€) daude; beste muturrean, Iturrigorri-Peñascal (19.574€), Uretamendi 19.629€) eta Otxarkoaga (19.664€).

Langabezia eta lan prekarietatea daude familien errenten arteko desberdintasunen eragilean artean. Lanbidek udalerrian 2015eko abendurako erregistratutako **langabezia** indizea %17,73koa izan zen (Bizkaikoa, %15,32, eta EAEkoa, %14,1, baino apur bat handiagoa).


Bilboko biztanleriaren %11,4k ez du oinarrizko premiei (elikadura, etxebizitza...) aurre egiteko adinako diru-sarrerarik, eta horrek esan nahi du **mantenu-pobrezia** arriskuaren tasa EAEko batez bestekotik (%8,2) gaineratik dagoela.

Garrantzitsua da aintzat hartzea pobrezia ez diola modu berean eragiten biztanleria osoari, eta kolektiborik **zaugarriek** indize bereziki altuagoak dituztela: 14 urtetik beherako biztanleria duten familia-etxeak, familia-etxe gurasobakarrak (eta bereziki buru emakume bat dutenak), buru pertsona atzerritar bat edo ikasketarik gabeko pertsona bat edo 35 urtetik beherako pertsona bat duten familia-etxeak.

Europa 2020 Estrategiaren markoan, gizarte bazterketa arriskua ikuspegi multidimentsional batetik neurtzea erabaki da, aintzat hartuta, pobrezia egoerez gain, lan-intentsitate urriko egoerak eta oinarrizko ondasun eta zerbitzu batzuetarako sarbideen urritasuna ere. **AROPE** tasa horren azken datu erabilgarriek adierazten dute 2015ean EAEko 16 urtetik beherako adingabeen %21,8 gizarte bazterketa arriskuan zegoela, aurreko urtetik 3 ehuneko igo den tasa, bost urte lehenagokoa baino 10 puntu altuagoa, Estatuko eta Europako batez bestekoak baino baxuagoa izan arren (%34,4 eta %27,7 hurrenez hurren).

Ikerketa batzuek aitortzen dute gure autonomia erkidegoko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemak eta Gizarte Zerbitzuen Sistemak leundu egin dituztela krisiaren ondorioak, eta horiei esker direla, neurri batean, EAEko tasak beste lurralde esparru batzuetakoak baino baxuagoak. 2016ko datarekin, 18 urtetik beherako adingabeak zituzten Bilboko 4.307 familia-etxek jasotzen zuten **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** (adingabeak zituzten familia-etxeen %12,6k), eta 15 urteko 6.130 adingabe ziren onuradun. Gainera, 18 urtetik beherako kideak dituzten 1.903 familiak jasotzen dituzte Gizarte Larrialdietako Laguntzak, eta 2.338 familia gurasobakarrek **unitate gurasobakarrentzako udal diru-laguntza** (mota horretakoen %46,76ak).

Etxebizitza da *Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak* haurren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta soziala bermatu behar dela dioenean aipatzen duen ondasun materialetako bat. Etxebizitza da gaur egun familien gastu nagusietako bat eta hari lotutako zorpetze maila oso altua da; krisi egoeretan, ugaritu egiten dira ordaintzeko ezinak eta etxegabetzeak. 2015ean, 559 **etxegabetze** judizial egin ziren Bilbon, aurreko urtean baino %23 gehiago.



ONGIZATE MATERIALAREN ADIERAZLEAK						
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Errenta maila	Batez besteko familia errenta erabilgarria	Bilbo	2013	33.876€	EUSTAT. Errenta Pertsonalaren eta Familia Errentaren Estatistika
2	Enplegua	Erregistratutako langabezia indizea	Bilbo	2015 Dic.	%17,73	Lanbide. Estatistika ez ofiziala
		Lan eskatzaileak	Bilbo	2015Dic.	50.315	Lanbide. Estatistika ez ofiziala
3	Pobrezia eta bazterketa arriskua	Arope tasa 16 urtetik beharokoen artean: pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dagoen 16 urtetik beharoko biztanleriaren proportzioa	EAE	2015	%21,8	INE. Bizi-baldintzen Inkesta. 2015
4	Pobrezia eta bazterketa arriskua	Mantenu-pobrezia arriskuan dagoen biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2014	%11,4	Eusko Jaurlaritza. Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014
		Arriskuan dagoen 14 urtetik beharoko biztanleria	EAE	2014	%13,7	Eusko Jaurlaritza. Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014
5	Pobrezia eta bazterketa arriskua	DBE jasotzen duten eta 18 urtetik beharoko kideak dituzten bizikidetzak unitateen pisua adingabeak dituzten familia guztiekin alderatuta	Bilbo	2016	%12,6	Kalkulu orientatiboa
		Diru-sarreak Bermatzeko Errenta jasotzen duten eta 18 urtetik beharoko biztanleria duten bizikidetzak unitateak	Bilbo	2016	4.307	Lanbide
		DBEren onuradun den 15 urtetik beharoko biztanleria	Bilbo	2016	6.130	Lanbide
6	Pobrezia eta bazterketa arriskua	Unitate gurasobakarrentzako udal diru-laguntza jasotzen duten familia-etxe gurasobakarren proportzioa	Bilbo	2015	%46,79	Bilboko Udala. Gizarte Ekintza Saila. Memoria 2015
		Unitate gurasobakarrentzako udal diru-laguntza jasotzen duten familia gurasobakarrak	Bilbo	2015	2.338	Bilboko Udala. Gizarte Ekintza Saila. Memoria 2015
7	Etxebizitza	Etxegabetzeak (etxegabetze judizialak)	Bilbo	2015	559	Bilboko Udala. Gizarte Ekintza Saila. Memoria 2015

Zenbat haur eta nerabe dago arrisku edo zaurgarritasun egoeran?

0 eta 18 urte arteko 11.564 pertsona egon ziren inplikaturata 2015ean Bilboko Udalaren **Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen (OGZ)** kasu aktiboetan, hau da, Bilbon bizi diren 10 haur eta nerabeetatik 2 inguru.

Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten 1.070 familia artatu zituzten OGZen **gizarte-hezkuntzan esku hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko** udal dispositiboek (18 urtetik beherako alabak edo semeak dituzten udalerriko familia guztien %3,13). Kasu berriek %27,06 egin zuten gora aurreko urtearekin alderatuta; hori zaurgarritasun egoerak ugaritzearen ondorio izan daiteke, baina izan daiteke gizarte baliabideetarako sarbidea hobetu izanaren eta gizarte baliabideak haien premia dutenengana iristeko ahalmen handiago izatearen ondorio ere.


Haurren eskubideei buruzko Konbentzioak argi ezartzen du haurra babesteko neurriak hartzeko betebeharra mota guztietako kalteen, abusu fisiko edo mentalen eta abarren aurrean. Zehazki, 2015ean **babesgabetasun arrisku larrian** zeuden adingabeen 83 espediente bideratu ziren Haurtzarorako Foru Zerbitzura babes neurriak hartzeko.

Ertzaintzak haurren eta nerabeen aurkako 232 **eraso** erregistratu zituen, halaber, urte berean, horien erdiak inguru (%48,27) familia esparruan eginak. Gainera, gogoratu behar da genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere indarkeria mota horren biktimak direla, ikusezinak askotan. Zehazki, Gizarte-larrialdietako udal zerbitzuak (SMUS) **genero indarkeriaren** biktima ziren 82 adingabe erregistratu zituen azken urtean.

Fenomeno horri emakumeen aurkako indarkeria praktikatzen duten nerabeen ikuspegitik ere begiratu dakioke, halaber, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan eta berdintasun horren sustapenean aurrera egiten jarraitu beharrekin lotuta.

Bestalde, arreta eman behar zaio amei, aitei edo bizikide dituzten beste ahaideei erasotzen dieten nerabeek praktikatutako indarkeriari ere. 2015ean, Bilboko 28 familiak eta 30 nerabek (%50 mutilak eta %50 neskek) hartu zuten parte Bizkaiko Foru Aldundiaren **gurasoen aurkako indarkerian** espezializatutako familian esku hartzeko programan.

Horrez gain, batez ere eskola bizikidetzaren esparruan, gero eta handiagoa egin da berdinen arteko tratu txarrei buruzko kezka. Gai horri buruz argitaratutako azken ikerketen arabera, Lehen Hezkuntzako bost ikasletik gutxi gorabehera batek (%21,7) adierazten du eskolan **berdinek egindako** mota bateko edo besteko **tratu txarren** bat jaso duela eskolan (2009an portzentajea %16,9koa zen). DBHko ikasleen %38k adierazten du orientazio sexualarengatik edo mutila edo neska izateagatik eragindako bazterketa kasuen lekuko izan dela eskola esparruan. Lehen Hezkuntzako ikasleriaren %11k **ciberbullyinga** jaso zuen 2012an zehar (beti, askotan edo batzuetan), eta ia %3a gogaitarazi, mehatxatu edo umiliatu zuten sarri (beti edo askotan) Internet bidez.



HAURTZARO ZAURGARRIAREN ADIERAZLEAK					
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA
1	Arriskua Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako kasu aktiboetako 0 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa osoarekin alderatuta	Bilbo	2015	%21,8	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
		Bilbo	2015	11.564	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
2	Arriskuan dauden 18 urtetik beherako adingabeak dituzten eta gizarte-hezkuntzan esku hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko udal dispositiboetan arreta jaso duten familien pisua	Bilbo	2015	%3,13	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
		Bilbo	2015	1.070	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
		Bilbo	2015	+%27,07	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
3	Babesgabetasuna Babesgabetasun arrisku larrian dauden eta babeserako neurriak hartzera bideratutako haurrak	Bilbo	2015	83	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
4	Indarkeria SMUSEk atzemandako genero indarkeriaren biktima diren haurrak (artatutako emakumeen semeak eta alabak barne)	Bilbo	2015	86	<i>Bilboko Udala. Gizate Ekintza Saila. Memoria 2015</i>
5	Indarkeria 0 eta 18 urte arteko adingabeen biztanleriaren aurkako indarkeria abaguneak (pertsonaren aurkako arau-hausteak)	Bilbo	2015	232	<i>Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila</i>
		Bilbo	2015	%48,27	<i>Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila</i>
6	Indarkeria Gurasoen aurkako indarkeriaren aurkako programan parte hartutako nerabeak	Bilbo	2015	30	<i>Bizkaiko Foru Aldundia. Memoria</i>
7	Berdinen arteko indarkeria Berdinek egindako tratu txarrak jaso dituela adierazten duen Lehen Hezkuntzako (3. zikloa) ikasleriaren proportzioa	EAE	2012	%21,7	<i>ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrei buruzko txostena</i>
		EAE	2012	%11,3	<i>ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarrei buruzko txostena</i>

Kultura, aisialdia eta denbora libre...

Ikerketa honetan aplikatutako inkestaren arabera, Bilboko 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren %76,2k kirola egiten du gutxienez astean hiru egunetan, baina emaitzek adierazten dute desberdintasun handiak daudela sexuaren eta adinaren arabera, mutilen eta adin txikiena dutenen alde.

Zehazki, 2015ean Bilbon 14 urtetik beherako 16.225 pertsona zeuden **Bilbao Kirolaken** abonatuta (%47,69 neskek); horrek esan nahi du adin horretako 10 bilbotarretatik lau udal kiroldegien sarean abonatuta dagoela.

Kalkulatzen da Bilbon **haur jolasetarako 2,99 gune publiko** daudela 0 eta 14 urte arteko 1.000 biztanleko.

Bilboko haurren ia heren batek (%63,8) **nahikoa edo oso maiz erabiltzen ditu hiriko plazak, parkeak eta aire zabaleko kirol edo jolas guneak** kalean jolasteko edo kirola egiteko. Gehiago zabal batek (hamarretik zazpi inguruk) uste du espazio horiek oso edo **nahikoa ondo zainduta** daudela, eta gustura egoteko, jolasteko eta ondo pasatzeko **behar den guztia** dutela. Baina adinak gora egin ahala espazio horiek erabiltzen dituen eta gogobeteta agertzen den biztanleria gutxitu egiten da. Jasotako eskarien artean, denbora pasatzeko, jolasteko edo auzoan lagunekin asteburuetan modu ez antolatuan kirola egiteko espazio "estaliei" buruzko erreferentziak nabarmentzen dira.

Aurreko kopuruak positiboak izan arren, garrantzitsua dirudi ez ahaztea aisialdi sedentarioko oihiturek ere pisua hartu dutela azken urteotan. EAEko haurrek eta nerabeek egunero 2 ordu ematen dituzte telebista, bideoak eta abar ikusten, eta ordu eta erdi **pantaila baten aurrean** gailu elektronikoekin jolasten, askotan sare sozialak erabiltzeko, hala nola Tuenti, Facebook, Twitter, Messenger eta abar (ia hiru ikasletik bik erabiltzen dituzte egunero sare horiek).

Azken urteotan hazi den beste fenomeno bat lagunen **lonjena** da. EAEko eskola biztanleriaren %20,7k mota horretako lonjetan ematen du asteko bere denboraren zati handi bat. Kopuru hori %17,2 ingurukoa zen bost urte lehenago (2006an).

Udalerriko **aisialdi eskaintzari** dagokionez, gutxi gorabehera inkestan galdetutako 8 eta 18 urte arteko hiru pertsonatik batek uste du eskaintza hori zabala eta nahikoa gogobetegarria dela; bereziki 8 eta 10 urte artekoek dira iritzi horretakoak (multzo horren %80k egiten du balorazio positiboa). Balorazio epelagoa egiten dutenek informazio gehiago izatea eta beste pertsona batzuekin topo egiteko eta ikasteko aukera emango dieten jarduera erdi-antolatuak eskatzen dituzte, eta protagonismo handiagoa izan eta eskaintzaren diseinuan parte hartu nahi dute.

Familiek, berriz, jarduera batzuetarako sarbidea erraztu behar dela adierazten dute (prezioak, plazak, bete beharreko baldintzak, desgaitasunak dituzten pertsonentzako egokitzapenak...), eta balioetan oinarritutako lana egiteko espazio "seguruak" barne hartuko lituzkeen aisialdirako eskaintza baten alde agertzen dira.


Bestalde, 12 urtetik gorako hamar ikasletik seik adierazten du **kultura jarduerak** egiten dituela, hala nola zinemara, kontzertuetara, museoetara, erakusketetara, antzokietara eta abarretara joan, gutxienez hilean behin, kasu askotan ikastetxeek berek programatutako jardueren markoan. Baina beste ikerketa batzuek ohartarazten dute nerabezaroan kultura jardueretako parte-hartze indizeak nahikoa apalagoak direla; adibidez, 2012an, 15 eta 19 urteko

biztanleriaren %21 baino ez zen museo batera joana azken hiru hilabeteetan, eta %52k baino ez zuen liburu bat irakurria aisialdian azken hilabeteetan.

Irakurtzeko ohiturak aipamen berezia merezi du, ezagutzak garatzeko, potentzial pertsonala garatzeko eta, azken batean, gizartean parte hartzeko gaitasunak bereganatzearekin lotutako onura askorekin lotuta baitago. Nabarmenezkoa da, azken urteotan hobekuntza esanguratsua egin bada ere, 11 eta 17 urte arteko haur eta nerabeen %23ak ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen denbora librean.

Esan daiteke, halaber, musikarekiko eguneroko kontaktuak onura asko dituela mugimenduen garapenerako zein garapen intelektualerako adin txikietan. 2015ean, 8 eta 18 urte arteko 745 pertsona zeuden matrikulatuta udalerriko **Udal Musika Eskolan** (adin horretako biztanleriaren %2,66).

Azkenik, aipatzekoa da biztanleria gazteenaren artean euskalduntze maila nabarmen handiagoa dela beste adin batzuetako biztanle multzoetan baino. Bilboko biztanleria euskaldunaren batez besteko pisua %22,9 ingurukoa da (Bizkaiko biztanleria osoaren %31,20 da euskalduna), eta 10 eta 14 urte arteko lau pertsonatik hiru dira **euskaldunak** (%75,26). Erronka, kasu honetan, euskararen erabilera normalizatzea da.



KULTURAREN, AISIALDIAREN ETA DENBORA LIBREAREN ADIERAZLEAK						
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Kirola	Gutxienez astean 3 egunez kirola egiten duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	76,2%	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
		Neskak	Bilbo	2017	68,4%	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
		Mutilak	Bilbo	2017	83%	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
2	Kirola	Bilbao Kirolaketen abonatuak 0 eta 14 urte arteko biztanleriaren pisua osoarekin alderatuta	Bilbo	2015	41,1%	<i>Bilboko Udala. Jardueren memoria</i>
3	IKT	Sare sozialak egunero erabiltzen dituen eskola biztanleriaren (unibertsitatez kanpokoa > 12 urte) proportzioa	EAE	2011	65,4%	<i>Drogak eta Eskola VIII. Drogenpekoatasunen Deustuko Institutua</i>
4	Pantailak	11 eta 18 urte arteko biztanleriak gailu elektronikoekin jolasteari-jokabide sedentarioari (ordenagailuko jolasak, bideokontsola, tableta, smartphonea eta abar) eskaintako orduen batez bestekoa	EAE	2014	1,4	<i>MSSSI. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)</i>
5	Denboraren erabilera	Astero "lonjetara" joaten den eskola biztanleriaren (unibertsitatez kanpokoa > 12 urte) proportzioa	EAE	2011	20,7%	<i>Drogak eta Eskola VIII. Drogenpekoatasunen Deustuko Institutua</i>
6	Denboraren erabilera	Jolasteko edo kirola egiteko plazak, parkeak eta aire zabaleko kirol edo jolas guneak nahikoa edo asko erabiltzen dituen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	63,8%	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
7	Ekipamenduak eta aisialdirako baliabideak	Haur jolasetarako gune publikoak (0 eta 14 urteko 1.000 biztanleko)	Bilbo	2009	%2,99	<i>Bilbao Ekintza. Bilboko Behatokia.</i>
8	Ekipamenduak eta aisialdirako baliabideak	Plazak, parkeak eta aire zabaleko kirol edo jolas guneak nahikoa edo oso ondo hornituta daudela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%72,9	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
9	Aisialdirako eskaintza	Aisialdirako eskaintza nahikoa edo oso gustuko duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%65,7	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
10	Kultura jarduerak	Kultura jarduerak egiten dituen eskola biztanleriaren (unibertsitatez kanpokoa > 12 urte) proportzioa: zinemara, kontzertuetara, museoetara, erakusketetara, antzokietara... gutxienez hilean behin joan	EAE	2011	%62,2	<i>Drogak eta Eskola VIII. Drogenpekoatasunen Deustuko Institutua</i>
11	Irakurketa	Libururik, aldizkaririk, komikirik... inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez duen eskola biztanleriaren (unibertsitatez kanpokoa > 12 urte) proportzioa	EAE	2011	%23,2	<i>Drogak eta Eskola VIII. Drogenpekoatasunen Deustuko Institutua</i>
12	Musika	Musika Eskolan matrikulatuta 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren pisua osoarekin alderatuta	Bilbo	2015	%2,66	<i>Bilboko Udala. Jardueren memoria</i>
13	Euskara	Biztanleria euskaldunaren pisua 10 eta 14 urte arteko biztanleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2011	%75,26	<i>Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak</i>
		Biztanleria euskaldunaren pisua biztanleria osoarekin alderatuta	Bilbo	2011	%22,9	<i>Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak</i>

Zer ezaugarri ditu bizi diren inguruak?

Bilboko **parkeek, lorategiek eta gune berdeek** okupatutako hiri-lurzoruaren azalera ratio txikia du, %13,3koa. Probintzian batez besteko portzentajea are txikiagoa bada ere, %11,46 ingurukoa, aintzat hartzekoa da Donostian jolaserako erabilgarri diren aire zabaleko guneen ratioa %59,93koa dela, eta Gasteizen %16,9koa.

16 urtetik gorako Bilboko biztanleria oso gogobeteta dago hiriko auzoetako **bizi-kalitatearekin** (horren inguruko azken ikerketak 0 eta 10 arteko eskalan batez besteko 7ko puntuazioa aipatzen du), eta %11,1 apal batek baino ez du uste **oztopo arkitektonikoen problematikak** garrantzi handia duela.

Datu horiekin bat eginda, udalerriko haur eta nerabeen biztanleriari egindako inkestazioak adierazten du hamar haurretik ia bederatzik uste duela Bilbo **hiri atsegina dela** eta %74k uste duela hiri dibertigarria dela. Puntuaziorik onena ematen dutenen artean, Deustuko, Abandoko eta Uribarriko ikasleria dago, eta kritikoen agertzen direnen artean Errekaldekoa nabarmentzen da. Hamarretik ia seik (%58,4) uste du kaleak **garbi eta zainduta** daudela.

Hirutik bik **hiria oso edo nahikoa segurua dela** uste du. Gehiengoak (lautik hiruk) uste du gaez nahikoa argiztapen edo argiztapen asko dagoela, eta lasai eta seguru sentitzen dira Bilboko kaleetan ibiltzean (neskak neurri apalagoan), baina ia erdiek (%44,4) uste dute autoek ez dituztela behar adina errespetatzen oinezkoak. Gainera, inkestan galdetutako 18 urtetik beherako biztanleriaren bolumen esanguratsu batek hiria nahikoa edo oso **zaratatsua** dela hautematen du (%32,8).


Inkestan galdetutako hiru haurretik bik nahikoa edo asko erabiltzen du metroa, autobusa edo tranbia, eta nahikoa edo oso gogobeteta dago erabiltzen duen **garraio publikoarekin**. Baina 18 urtetik beherako bost pertsonatik bakar batek adierazten du **bizikleta** nahikoa edo asko erabiltzen duela Bilbon, eta %48,1ek oso gutxi erabiltzen du.

Balioak bereganatzeari dagokionez, datuen arabera azken urteotako bilakaera positiboa izan bada ere, hala familiak nola hezkuntzako eragileak bereziki arduratuta daude dibertsitatearekiko errespetuan, genero berdintasunean, kontsumo arduratsuan eta abarretan kota altuagoak lortzen. Gogoratzekoa da eskola biztanleriaren %16ak nola edo halako arbuioa adierazten diola ikaskide gisa pertsona atzerritar immigrante bat izateari eta %30ek **ijito etniako** pertsona bat izateari.

Parte-hartze soziala sustatzeko, horretarako bideak eskaintzeaz gain, garrantzitsua da jarrera kritikoa, autonomia, proaktibitatea eta abar sustatzea ere. Ikerketa batzuen arabera, EAeko 12 eta 18 urte arteko eskola biztanleriaren %14,7k parte hartzen du gutxienez hilean behin gazte elkartetan edo gizarte mugimenduetan.

Ikerketa honen markoan egindako azken inkestak erakusten du Bilboko 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren %83ari gustatuko litzaiokeela **Udalak** aintzat hartzea berak zer iritzi duen hiriarri buruzko erabakiak hartzean, eta %31,2k uste duela gaur egun oso gutxi hartzen dela aintzat beren iritzia.

Gainera, egiaztatu da inkestan galdetutako hamarretik bik adierazten duela gutxi edo oso gutxi ezagutzen dituela Konbentzioan jasotako eskubideak, eta ezagutza mailak baxuagoa dirudi 15 urtetik gorakoen artean.



INGURUAREN ADIERAZLEAK						
OSAGAIA	ADIERAZLEA	LURRALDE ESPARRUA	URTEA	DATUA	ITURRIA	
1	Ekipamenduak eta baliabideak	Parkeek, lorategiek eta gune berdeek okupatutako lur-azalera	Bilbo	2009	%13,3	<i>Eusk Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila. Udalmag</i>
2	Bizi-kalitatea	Biztanleriak norberaren auzoaren bizi-kalitatearekiko duen batez besteko gogobetetasuna (0-10 eskalan)	Bilbo	2014	7	<i>Bilboko Udala eta Deustuko Unibertsitatea. Bilboko Auzoetako Hiri Behatokia</i>
3	Bizi-kalitatea	Bilbo hiri nahikoa edo oso atsegina dela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%88,3	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
4	Ingurumena	Bilbo hiri nahikoa edo oso garbia dela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%51,7	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
5	Ingurumena	Bilbo hiri nahikoa edo oso zaratsua dela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%32,8	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
6	Segurtasuna	Bilbo hiri nahikoa edo oso segurua dela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%66,3	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
7	Mugikortasuna	Garraio publikoarekin nahikoa edo oso gogobeteta dagoen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%66,7	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
8	Mugikortasuna	Bizikleta nahikoa edo asko erabiltzen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%20,4	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>
9	Mugikortasuna	Oztopo arkitektonikoen problematika garrantzitsua dela uste duen biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2014	%11,1	<i>Bilboko Udala eta Deustuko Unibertsitatea. Bilboko Auzoetako Hiri Behatokia</i>
10	Balioak	Ikaskide gisa ijito etniako pertsona bat izateari arbuioa adierazten dion eskola biztanleriaren (unibertsitatez kanpokoa > de 12 urte) proportzioa	EAE	2011	%30	<i>Drogak eta Eskola VIII. Droga-menpekotasunen Deustuko Institutua, 2011</i>
11	Parte-hartzea	Udalak bere iritzia aintzat hartzen duela uste duen 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren proportzioa	Bilbo	2017	%38,8	<i>Inkesta propioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udala</i>

Diagnostikoan identifikatutako kezkak eta esku-hartze arloak

Aurreko ataletan, udalerriko haur eta nerabeen egoeraren berri ematen duten datuak eta gakoak aurkeztu dira; horiek lagungarri dira identifikatzeko hala indarguneak eta aukerak (baliabideak, gaitasunak...) nola, kolektiboaren beharrezanezi eta eskubideei modu negatiboan eragin diezaieketenez, haur eta nerabeen ongizatearekiko kezka handiena eragiten duten arazoak (ahulguneak, mehatxuak...).

Gako horiekin lotuta eta arreta berezia emanez gehien nabarmendutako kezkei, atal honetan haur eta nerabeen biztanleriaren ongizatearen hobekuntzan konprometitutako eragileek hurrengo urteetan izango dituzten lan arlo eta erronka nagusiak jasoko dira:

DEMOGRAFIA dimentsioarekin lotutakoak

- Pertsona gazteen eta horien familia proiektuen **emantzipazioa** sustatu.
- Udalerrian bizi diren haur guztien eskubideen praktika eraginkorra bermatu, dagoen **dibertsitate** kulturalari eta etnikoari arreta emanez.

FAMILIA dimentsioarekin lotutakoak

- Amen eta aiten laneko eta familiako arduren **bateratzea** erraztu, eta planeatutako erantzunetan eta laguntzetan arreta eman familia moten dibertsitateari.
- Gizonen eta emakumeen **erantzunkidetasuna** sustatu alaben eta semeen hazkuntzan.
- Gurasoak haurren **hazkuntza arduratsuari** aurre egiteko hazkundearen etapetan behar diren ezagutzez eta tresnez hornitu, gatazken konponbidearekin, adingabeen autonomiaren sustapenarekin eta abarrekin lotuta, besteak beste.
- Familia barruko kalitateko **komunikazioan** inbertitzeak duen garrantziaz sentsibilizatu.

OSASUNA dimentsioarekin lotutakoak

- **Ohitura osasungarriak** sustatu, batez ere elikadurarekin lotutakoak, baina bai eta kirolarekin, higienezarekin eta abarrekin lotutakoak ere,
- Substantzien kontsumoarekin edo sexu praktikekin lotutako **jokabide arriskutsuak** prebenitu, materia horietan nerabeekin egindako lana adin txikiagoetara aurreratuta, erabakiak informatuta eta irizpideak dituztela hartzeko gai izan daitezen.
- Adin txikiagoetatik hasita lan egin **osasun mentalaren eta dibertsitate funtzionalaren** inguruan, prebentzioari arreta berezia emanez, egoerak are gehiago kronifikatu edo konplikatu aurretik esku hartzeko, aldi berean arreta hobetuz, horretarako bideratutako baliabideak handituta, eta adingabeekin esku hartzen duten eragileen lan bateratua indartuz.

HEZKUNTZA dimentsioarekin lotutakoak

- Eskola-errendimendua eta **eskola-arrakasta** sustatu, horretarako ikasgelan nola ikasgelatik kanpo dauden laguntza programak indartzuz (eskola laguntzako programak, eskolatik kanpoko jarduerak, tailer gizarte-hezitzaileak eta abar) beharrezkoak diren baliabide materialekin eta giza baliabideekin hornituta.
- Hezkuntza sistemak desberdintasunak prebenitzeko baliabide gisa duen papera indartu, eskola bereizkeria saihestuz eta **dibertsitateari** arreta emateko programak indartzuz, bai eta hezkuntza sistema desgaitasunak, jokabidearen nahasmenduren bat edo ikasteko zailtasunak dituen ikasleriara egokituz eta erronka horretarako behar diren baliabideekin hornituz ere.
- Ikasleek eta haien familiak ikastetxearen bizitzan **parte-hartze** handiagoa izatearen aldeko apustua egin.
- Eragile gizarte-hezitzaileen arteko koordinazioa bultzatu (ikastetxeak, osasun esparruak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza ez arautua eta abar), esku hartzea (funtsezko alderdietan, hala nola balioetan heztea, premiak atzematea, erantzunak koordinatzea eta abar) koherentea izan dadin ikasgelen barruan eta ikasgeletatik kanpo, eta egonkorra eta jarraitua izan dadin, modu eraginkor eta efizienteagoan lortzeko emaitzak, ekite puntual eta/edo estankoak saihestuz.
- Ez ahaztu 0 eta 3 arteko haurren arreta-sarea, eta balioetsi horrek haurren garapenean duen zeregin onuragarriari.

ONGIZATE MATERIALA dimentsioarekin lotutakoak

- **Haurren pobrezia** prebenitu, seme-alabak dituzten familien aldeko politika publikoak sustatuta eta seme-alabak dituzten familiei emandako prestazioen eta laguntza ekonomikoen sistema hobetuta (adibidez, neurri ekonomiko edo fiskalen bidez, adingabeei bideratutako zerbitzuen hornikuntzaren bidez eta abar).
- Haurren arteko **desberdintasuna** murriztu, arreta berezia emanez adingabeak beren kargu dituzten familiarik zaugarrienei (familia gurasobakarrak...) oinarritzko premiak asetzen laguntzeari (adibidez, DBE jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenei edo DBE agortu edo kendu dietenei...).
- **Etxebizitzarekin** lotutako babesgabetasun arrisku egoerak artatu.

HAURTZARO ZAURGARRIA dimentsioarekin lotutakoak

- **Arrisku** egoeren hautemate goiztiarra sustatu eta haurren **babesgabetasuna** prebenitu, egoerak gehiegi aurreratu baino lehen esku hartzeko, esku-hartze gizarte-hezitzaile eta psikosozialak indartzuz, batez ere kolektibo horrekin lan egiten duten eragileen arteko koordinazioa hobetuz eta apustu eginez errektiboa baino gehiago proaktiboa izango den esku-hartzearen alde.
- Mota guztietako indarkerien **biktima** diren haur eta nerabeekiko esku-hartzea hobetu, bereziki familia barruko indarkeriarenak, genero indarkeriarenak eta hirugarrenek eragindako indarkeriarenak.
- Hurrek eta nerabeek egindako **indarkeria** egoerak prebenitu eta horiei aurre egin, aintzat hartuta indarkeria mota bakoitzaren berezitasunak eta horrek biktimgan dituen

ondorioak, batez ere berdinen arteko tratu txarrak, genero indarkeria eta gurasoen aurkako indarkeria.

- Arreta hobetu, baliabideak eta esku-hartzeak kasu bakoitzaren berezitasunera egokitzeko duten moldagarritasunari eta malgutasunari dagokionez.
- Behar diren neurriak hartu edozein motiborengatik baliabide edo zerbitzu batzuetara sarbidea izateko desabantaila egoeran edo zailtasun handiagoen mende egon daitezkeen pertsonak beren eskubideak praktikan jarri ahal ditzaten berdintasunean.
- Aurrera egin haur eta nerabeen kolektiboarekin esku hartzen duten profesionali zuzendutako sentsibilizazio eta trebakuntza espezializatuan.

KULTURA, AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA dimentsioarekin lotutakoak

- **Aisialdi mota** aktiboago bat bultzatu, aire zabalean egina, gertutasunezkoa, demokratikoagoa, autonomia sustatzen duena eta abar (adibidez, hiri-espazioa haur eta nerabeen biztanleriaren aisialdiko eta denbora libreko ekintzetarako gehiago erabiltzea bultzatuz...).
- **Aisialdirako eskaintza** birpentsatu, nerabeak erdigunean jarrita eta eskaintza horren hartzaileak horien diseinuan eta kudeaketan txertatuz.
- Aisialdirako espazioak eta eskaintza baliatu edukiak eta balioak lantzeko, horri esker egoera arazotsuak prebenitu eta identifikatu ahal izateko, eta horiei aurre egiteko sortzen direnean.
- Adingabe guztiek, edozein direlarik haien familien baliabideak, kulturaz, kirolaz, denbora libreaz eta aisialdiaz bete-betean goza dezaten ahalbidetzen duten jarduerak eta ekipamenduak bultzatu.
- Beharizan bereziak edo ezintasunak dituzten haurrek administrazio publikoek antolatutako aisialdirako jardueretan berdintasun baldintzetan parte har dezaten bermatu.
- Haur eta nerabeen biztanleria motibatu kultura ohitura batzuen inguruan, horien artean **irakurtzeko ohitura**, balioetsiz haien potentzial pertsonala garatzeko gakoak diren gaitasunen garapenean duen potentziala.
- **Euskararen** erabilera indartu haur eta nerabeen bizitzako esparru guztietan.

INGURUMENA dimentsioarekin lotutakoak

- Haur eta nerabeen beharizanen ikuspegia modu transbertsalean txertatu hiriaren planifikazioan eta **diseinuan**, haren espazioei, ekipamenduei eta zerbitzuei dagokienez (garraio publikoa, argiztapena, ekipamenduak, gunek berdeak...), jolaserako eskubidearekin, segurtasunarekin, mugikortasunarekin eta autonomiarekin lotuta (adibidez, beste tresna batzuekin batera bultzatzeko modukoa izango litzateke xedapen arau-emaelek haurrengan duten eraginari buruzko txostenak egitea...).
- Dibertsitatearekiko errespetuan aurrera egin maila guztietan (orientazio sexualari dagokionez, ezintasunei dagokienez, desberdintasun kultura eta etnikoei eta abar).
- **Genero berdintasuna** sustatu adingabeen artean
- **Kontsumo arduratsua** sustatu, beren benetako beharizanetara egokitutako kontsumoa, ingurumena eta giza eskubideak errespetatzen dituzten produktu eta zerbitzuak aukeratzea lehenesten duena.

- Haur eta nerabeen artean beren ahalmenak ondasun komunaren, helburu kolektiboen, erantzukizun eta konpromisoak bereganatzearen alde jartzea sustatu (adibidez, haurren eta nerabeen arteko asoziazionismoa bultzatuz...).
- Hurrek beraiei dagozkien politiken diseinuan **parte hartzeko** bideak abian jarri, 18 urtetik beherakoen parte-hartze demokratikoa ahalbidetuko duten organo egonkorrak garatuz, adibidez.
- Haur eta nerabeek Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa (HEK) ezagut dezaten bermatu, bai eta kolektibitate bateko kide gisa dituzten erantzukizunak ere.